

Aho bat, bi belarri

POR Jokin
Bildarratz Sorron



AHO bat, bi belarri; gutxi mintza, asko adi. Gaur Euskararen eguna eta hamaika egunetan zehar

Euskaraldia ospatzen ari garen garai honetan, Alderdi Popularrereko ordezkari nagusiek belarria prest izan beharko lukete antzinako atsoitz honi jaramon egiteko. Izan ere, politikan betidanik, eta batez ere gaur egungo egoera nahasian, komenigarria izaten da gauzak behin esan baino lehenago bitan entzutea eta hausnartzea.

Senatuko Talde Popularrereko bozeramaileak, Ignacio Cosidok, ez du zuhurtasunaren edo diskrezioaren papera jokatu nahi eta, *ahobizi* beharrean, ahobero agertzen ari da behin eta berriz. Ez dut berriro gogoratuko bere taldekideei helarazi zien whatsapp lotsagarria; oraingoan astelehenean espetxeetako eskuduntza Euskadiri transferituko zaiola iragarri zenean esandakoa nabarmendu nahi dut. Bere uestez, akordio hau Estatu-toko Gobernuak "bere bazkide nazionalisten aurrean berriz ere amore eman" izana erakusten du eta, gaineratu zue-nez, "ETAko presoak hurbiltzeko egin ahaliko litzatekeen edozein politikaren aurka egingo dugu".

Gernikako Estatuak transferentzien inguruan jasotzen duena ez errespetatzea eta, argudio berean, Espainiako Legeak presoek onartzen dizkien eskubideen kontra agertzea Goi Ganberako bozeramaile popularraren ekimen indibiduala balitz, gaitz erdi; tamalez, legearekiko intsumisio agertzeko joera hau zabalda da euren alderdian. Eta ez bakarrik Espainiak; joan den astean, Euskadiko presidentek, Alfonso Alonsok, Euskadiko Autonomia Estatutua "bere osotasunean beteta" dagola esan zuen. Oraindik transferitu gabe dauden 37 eskuduntzak ahaztu ez egite, gehiago esatera ere ausartu da, eta Euskadik "ez dagozkionak ere hartu" dituela ziurtatu du. Alonsoren gezurretara ohituta nengoelakoan, onartu beharra daukat honakoak erabat hartitu nauela: edo errealtatearen pertzepzioa edo lotsa guztiz galdu du. Ez hori bakarrik; Euskadiko Legebiltzarren erabakiaren aurka jo

du, euskal interesei muzin eginez, Madrildik interesatzen zaien mezua zabaldu ahal izateko. Abestiak dioen moduan: "Txanpon baten truke".

Azken finean, jokabide hauek erakusten dutena da, beste behin. Alderdi Popularrak ez duela inoiz Estatu anitz baten sinetsi; baina ez hori bakarrik, ez du sinesten Estatu honek Erkidego desberdinak dituela eta ez du sinesten bakoitzak bere eskuduntzak dituela. Adibide bezala, duela bi urte Auzitegi Konstituzionalak Euskadiren aldeko bi eskumen onartzen zituen epaia jakinarazi zuen eta PPK behin eta berriz bete gabe utzi ditu: hori al da Estatu batek izan beharko lukeen jokabidea?

Espainian epainetan darabiltzate Konstituzioa eta Legea baina hauek betetzera-koan hitza jan eta bere aplikazioa komenentziaren arabera-koan izaten da: Katalunian zorrotzasun guztiarekin inposatzen den bitartean, beste hainbat kasutan bete ez eta horren justifikazio-ri ere ez da eman behar izaten, gehien-geon nagusitasunean ezkutatuta. Gezur hutsa. Nor da, bestela, Katalunian egun bizi den egoeraren erruduna? Gogoratu behar da, 2006an PPK Kataluniako herriari eman zion zaplaztekoa Estatut-*a zepillatu* zuenean. Horretarako, gainera, Andaluziako Estatutuan PPK berak ontzat eman zituen 30 artikuluko errekurritu zituen Kataluniakoan, hitzez hitz berdinak izan arren, Konstituzioaren kontra egiten omen zutelako. Zer sentituko du Erkidego horretako kide batek injustizia horren aurrean?

Asteko zirkulua osatzeko, asteazkenean alderdiko presidentek, Pablo Casadok, hezkuntzaren eskumenak Estatuan zentralizatuta egon behar direla esan eta horren alde egingo duela aurreratu zuen. Oraingoan esandakoa ulertzeko, komeni da iraillean esan zituenak gogoratzea; hain zuzen ere, ezin zela onartu Estatuak doktrinamendurik ekidin ezin izatea, sistemetan parekidetasunik ez gotea, eduki desberdinak jasotzea edo irakasleak hizkuntzen arabera aukeratzea. Gaztelaniaz existitzen ez den aditza erabiltza, "hori ez dela Estatu autonomi-koia zentripetatzea" ziurtatu zuen. Hitzetan ez dakit, baina asmo eta ekintzetan Casado *zentripeto-petoa* dela esan genezake.

Ildar zentripetoak alde batera utzita, poloen erakartze eta aldaratze indarren

teoriara joango gara. Izan ere, zeinu desberdina duten polak elkartu ohi diren bezala, politikan mutur bietakoak direnak elkar elikatzen ari dira euren jarre-ekin. PPK berak onartzen du muturreko ezkerre dela eskubia hirutan zatitu izan-aren erantzulea eta, haien arteko lehia-ren ondorioz, eskubiko ideologia duten alderdien erradikalizazioaren erruduna; baita Alderdi Popularrarena ere.

Honenbestez, Jose Maria Aznarren aspaldiko amets ezkutua eta FAES fundazioaren teoria zaharra politikaren taula gainean daukagu dagoeneko: abertzale-*tasun* sentimenduen hazkundearen erruduna hezkuntza da. Horri helduta, Katalunian arazorik ez zegoen arloetan arazoak bila-tzen ari dira, presioa mutur-*raino* eramanez, zentralizazioaren interesean jokatzuz, sufitzen ari den jende-*ari* batere garrantzirik eman gabe. Suaren inguruan gasolinarekin jolasten. Horren adibide hurbil baten berri izan dugu egunotan, Nafarroako Hezkuntza Saibilburuari egiten ari zaizkion jazarpe-*na*rekin. Europa mailako adituek txalotu duten berdintasunerako Skolae izeneko programa martxan jarri izanagatik sekula-*loak* entzun behar izateaz gain, Maria Solanak mehatuak ere jaso ditu eta ora-*in* eskoltarekin ibili behar du, teknika-*riak* presionatzen dituzte eta euren bule-*go*etara baimenik gabe sartu dira. Nafar-*ro*ako Alderdi Popularrak honen inguru-*ko* salaketarik azalduko ote du?

Momentuz, Euskadikoak muzin egin dio ostegunean Eusko Legebiltzarrean Saibil-*bu*ru nafarraren aurkako mehatuak gai-tzesteko eta bere hezkuntza pro-*gra*ma babsa adierazteko aurkeztu zen adierazpen instituzionala onartzeari. Nola hartuko lukete euren alderdiko kar-*gu* publiko bati atxikimendua adieraz-*te*ari ezetz esango bagenio besteok? Askatasuna ideologia uniformatzailea duten politikoentzako baino ez da izan behar?

Natura oso jakintsua dela esan ohi da; horren adibide da hitz egiteko aho bat baino entzuteko bi belarri eman dizkigu-*la*. Gizartean, alabaina, badago beti kon-*flik*toak bilatzen ari denik; behar den beste entzun gabe hitz egiten duenik. Politikan, *belarri*prest izatea behar da, *ahobizi* beharrean ahohandi izan nahi ez bagara. ●